

## **Eguraldiaren gorabeherak direla eta, hona hemen ohar batzuk:**

**Zuloaga Plaza:** Zuloaga plazan aurreikusitakoa **ekitaldi guztiak**, bai gaurko inaugurazioa, bai larunbateko eta igandeko jarduera guztiak, **Zuloagan bertan egingo dira**. Programan hasiera batean euria ari balu beste aukera batzuk aipatu ziren arren, azkenean, karpa jarri da, eta plazan bertan egingo dira ekitaldi guztiak.

**Basoka, Zorionak Dylan!:** Miramongo basoan egingo da *Zorionak Dylan!* Euria ari balu hasiera batean Lugaritz Kultur Etxea ageri zen aukera bezala, baina azkenean, erabaki da ekimena Miramonen egitea, eguraldia edozein dela ere.

**Beste guneetan,** B planak **egitarauan ageri bezala** mantenduko dira, baina badira kasu berezi batzuk.

- **Zurriola Pasealekua:** Zurriola Pasealekuan gaur, bihar eta igandean aurreikusitako kontzertuak Zurriolan bertan egingo dira, musikariak estalitako kontainer batean daudelako. Biharko bestelako ekitaldien dagokienez (Urbanzientzia, jolasak...), bihar goizean goiz erabakiko da non izango diren eta jakinarazi zaizue. Euria ari badu, ekitaldi batzuk Okendo Kultur Etxean egingo dira eta beste batzuk Zuhazti eskolaren Biteriko egoitzan, baina hori bihar erabakiko da. Hori bai, bertan aurreikusita zegoen **Hiria Eraiki, Caritas Gunea bertan behera** uztea erabaki du Caritasek eta beraz, ez da ekimen hori egingo.
- **Memoriaren Parkea:** Euria egingo balu, bertan aurreikusitako jarduerak Loiolako Erriberako Ikasbide ikastolan egingo lirateke, baina hori ere bihar goizean erabakiko da.